

Atzo aurkeztu zuten Getarian txakolinaren uza berria, San Anton egunez. Giro paregabea izan zuten zonaldeko salda preziatua probatu, eta haren jario bizi az gozatu ahal izateko

INAKI GURRUTXAGA
Getaria

Sagardotegia izan edo txakolindegia izan, bertsolariak aparte dohaina dute inguruan ikusi eta sentitzen dutena kantuan adierazteko. Txakolinak «bizitzen» laguntzeaz gain «bixitzen» ere laguntzen duela esanez amaitu zuen atzo bertsoa Sebastian Lizasok, Getariako Txakolina jatorri izenpean ekoitzi den txakolin uza aurkezteko ekitaldian. Ez zitzaion arrazoirik falta. Bizitzen laguntzen die txakolinaren produkzioan aritzen diren upategiei, eta haien ekoizpenak, berriz, makina bat lagunengan animoak bixitzen ditu.

San Anton eguna zen atzo, egun handia getariarentzat. Eta ez bakarrik patroiarri gorazarre egiteko eguna zelako. Zonaldeko salda preziatuaren eguna ere bazen atzo, festarako egun aproposa. Goizeko meza nagusiaren ondoren, txakolin uza berria aurkeztekoa zen karpapera joan ziren prozesioan agintariak. Kaleak lepo, zahar eta gazte, eta giroa bero. Eguzkiak bete-bete jotzen zuen atzo eguerdian kostaldean, eta txakolina probatzera bildu zirenen grinak are gehiago berotu zuen aurrez baze-goena.

Getarian, Zarautzen eta Aian dauden 17 upategiek egindako txakolina dastatzeko gogoa bazela sumatzen zen. Jendea leku bila, haurrak jendarteaz zabalitzen ziren zirrituetatik korrika, aiton-amonak urduri... Emozioa sorrazten du txakolinak Getaria par-



Eguraldia lagun, jende ugari bildu zen atzo Getarian. JUAN CARLOS RUÍZ / ARIKAZO PRESS

Bizitzeko eta bixitzeko



■ zenbakia

1.557.000

■ litro txakoli ekoitzi dituzte Getanako Txakolina jatorri izenaren barruan, eta 2.076.000 botila merkaturatu.

tean. Jaki eder batek edari ona hobetu egiten duela aintzat hartuta, Getariako taberne egindako Pintxo Lehiaketaren sariak banatu zituzten lehendabizi. Atuna eta antxoak behar zituzten izan oinarrian pintxo horiek. Mahasti tabernak jaso zuen saria.

MAHASTI JAUNAK. Produktu batek arrakastatsua izateko kalitatea behar du ikur, baina oihartzuna ere bai, eta hori dela eta, Martin Berasategi eta Hilario Arbelaitz sukaldari ezagunak izendatu dituzte aurten Mahasti Jaun. Biek ala biek pozik hartu zuten saria. Arbelaitzen iritziz, txakolina asko hobetu da urteen poderioz, eta gaur egun, «segurtasun guztiareskin» eskaintzen diete txakolina haien bezeroei. «Jaki on batek edari ona behar du, eta hori eskaintzen digu egun txakolinak».

Berasategik umoretsu hitz egin zuen saria esku artan zuela. Reala bigarren mailara ez jaisteko, jokalariek txakolina edan behar lukeela adierazi zuen, bertaratutako en barre algaren artean. Serioxeago ere mintzatu zen, eta nabarmendu zuen Getariako Txakolina «mortasun handikoa» dela, eta euskal herritar guztien lana dela horren alde egitea.

Sari banaketaren ondorenean dastatu zuten lehenengo txakolina oholtza gainera igotako agintari eta txalokin ekoizleek. Guztiguztiek han bildutako en omenez egin zuten topa. Gero, herriaren txanda zen. Guztira 1.500 botila txakolin zabaldu zituzten, Lizaso eta Egañaren bertso, eta Laja eta Iturberen trikiti doinu biziek lagunduta.